

Hezkuntzarako lankidetza praktiken arautegia

A) Prozedura eta eskaerak egiteko arauak

Hezkuntzarako lankidetza praktikak egiteko tokiak eskaintzen dizkie Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak bere ikasleei, kasuan kasuko gradu edo titulazioaren araberrako prestakuntza akademikoa osa dezaten. Enpresa eta erakunde publiko zein pribatuen errealitatera hurbiltzen dira ikasleak kanpoko praktiken bidez eta, hartara, aukera daukate langunean bertan ezagutzeko laneko ohiturak eta trebetasunak.

Curriculumetik kanpoko praktikak ikastegiak sinatzen duen hezkuntzarako lankidetza hitzarmen baten bidez egiten dira, borondatezkoak dira eta ikasleen espediente akademikoan agertzen dira. Fakultateko irakasleen gidaritzapean egiten dira eta hautazko kredituak aitortzeko balio dute, Gradu eta Lehenengo eta Bigarren Zikloko Ikasketen Gestiorako 2014-2015 ikasturteko Arautegiak ezarritakoarekin bat.

<http://www.ehu.eus/eu/web/estudiosdegrado-graduikoikasketak/graduogestiorako-araudia>

* UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2014ko apirilaren 10ean onartutako arautegia, 2014ko maiatzaren 14an argitaratua EHAAn

B) Hautazko kredituak aitortzea

1. Curriculumetik kanpoko praktiken bidez hautazko 6 kreditu aitor daitezke, praktikak hautazko irakasgai bat balira bezala. Praktikak amaitu ondoren amortizatu ahal izango dira kredituak, hiru txosten/eranskin aurkeztuta fakultateko idazkaritzan.

Dokumentu horiek dira IV. eranskina, praktikak egin diren tokiko begiralearen txostena; V. eranskina, ikaslearen beraren balorazio txostena; eta VI. eranskina, ikastegiko tutoreak idatzitako txostena. Eranskin horiek honako web orri honetan daude eskuragarri:

<http://www.ehu.eus/eu/web/enplegua/araudia>

2. Fakultateko idazkaritzak kreditu horiek amortizatu eta aitortzeko gestio

egutegia argitaratu eta hedatuko du. Praktikak egiaztatzeko, ikasleak aipatutako txostenak eskatu beharko dizkio praktikak egin dituen tokiko begirale edo harremanetarako pertsonari eta ikastegiko tutoreari, eta bere txostena bete; ondoren, hiru txostenok ikastegiko idazkaritzan entregatu beharko ditu, ikastegian praktiken ardura duen dekanordeak horiek sinatu eta gero.

3. Ikasleak hautazko 6 kreditu lortu ahal izango ditu praktikak ikastegiko idazkaritzan egiaztatu ondoren.

*Arreta berezia jarri behar diete gestio egutegi horretako data eta epeei laugarren mailan matrikulatutako ikasleek, Gradu Amaierako Lanaren (GRAL) matrikula egiteari begira praktiken bidez kredituak aitortu nahi badituzte.

C) Praktikak eskatzeko baldintzak:

Praktikak egin nahi dituzten ikasleek baldintza hauek bete behar dituzte:

1. Gradu hirugarren edo laugarren mailan matrikulatuta egotea eta graduan gutxienez 120 kreditu gaindituta edukitzea.
2. Espediente akademikoa irekita izatea (hau da, matrikulatuta egotea eta titulua eskuratzeko eskubidea ematen duten ikasketak amaituta ez izatea) praktika aldia hasi arte.
3. Praktika hitzarmen bat egin ahal izango da ikasle, maila eta gradu.
4. Praktikak irakaskuntzaren osagarri dira eta ezin dira egin eskola orduetan. Eskolen ordutegia eta praktiken ordutegia bat etorri gero, praktika hitzarmena baliogabetu egingo da.
5. Ikasleak, 28 urte baino gehiago baditu praktikak egiteko tokia eskatzean, CUM LAUDE aseguru egin duela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia aurkeztu beharko dio praktiken gestioaren arduradunari (dekanordeari). Ezinbesteko baldintza da tokia aukeratu eta hitzarmena izenpetzeko.

D) Praktikak eskatu, gestionatu eta aurrera eramateko prozedura:



1. Praktiketan gutxienez 180 ordu eman beharko dira, eta gehienez 450.
2. Praktikak ikasturteko txanda naturaletan egingo dira, hau da, ikasturteko bi lauhilekoetan eta udako hiru hilabeteetan:
 - a) Udako praktikak: ekainaren 1etik abuztuaren 31ra arte. Gehienez 35 ordu egingo dira astean, eta 7 ordu egun bakoitzean (asteen bost egun).
 - b) Lehenengo lauhilekoa: urriaren 1etik urtarrilaren 31ra arte. Gehienez 20 ordu astean, eta 4 ordu egun bakoitzean (asteen bost egun). Praktikak goizez edo arratsaldean egin daitezke, fakultateko eskola orduekin bat ez datorren ordutegian.
 - c) Bigarren lauhilekoa: otsailaren 1etik maiatzaren 31ra arte. Gehienez 20 ordu astean, eta 4 ordu egun bakoitzean (asteen bost egun). Praktikak goizez edo arratsaldean egin daitezke, fakultateko eskola orduekin bat ez datorren ordutegian.

*Asteburuak ere izan daitezke, praktikek hala eskatzen badute. Ikasleak praktiken ordutegia negoziatu dezake praktikak egingo dituen tokian, baina kontuan izanda eskolen ordutegia errespetatu behar dela.

*Proposatutako txanda naturalez kanpoko ordutegiak ere negoziatu daitezke praktikak egingo diren tokiarekin, gutxienezko eta gehienezko ordu kopuruak errespetatuz gero. Kopuru horiek dira: 180 ordu gutxienez eta 450 ordu gehienez.
3. Aparteko kasuetan, hitzarmena luzatu egin ahal izango da praktiketan 750 ordu emateko, betiere, praktiketan egindako jarduera behar bezala ordaintzen bada.
4. Ikasleek honako bide hauek izango dituzte praktikei buruzko informazioa jaso eta eskaerak noiz aurkeztu behar diren jakiteko:
 - a) Ikastegiko iragarki oholak.
 - b) Ikastegiko web orria (<http://www.ehu.es/csc>).
 - c) Ikastegiko dekanotza.
 - d) GAUR PRAKTIGES
5. Ikastegiko praktiken arduradunak banatuko ditu praktikak egiteko tokiak. Tokiak urtean bi aldiz banatuko dira:



- a) Apirilean eta maiatzean, udako eta lehenengo lauhileko praktiketarako.
 - b) Azaroan eta abenduan, bigarren lauhileko praktiketarako.
6. Praktiken arduradunak buletin bat argitaratuko du praktikak banatzeko aldietan, eskaintako praktikei buruzko informazioa emateko: enpresaren izena, baldintzak, egin beharrekoak, ordutegiak eta ordainsaria. Buletin horiek honako bide hauek erabiliz hedatuko dira:
- a) Idazkaritzako iragarki oholak
 - b) Ikastegiaren web orria
 - c) GAUR PRAKTIGES aplikazioa
7. Praktiken arduradunak emandako tokiez gain, ikasleek, beren kabuz, ikastegiak argitaratutako eskaintzan agertzen ez diren tokiak bila ditzakete praktikak egiteko. Halakoetan, ikaslea harremanetan jarri beharko da praktikak egin nahi dituen tokiko begiralearekin, baldintzak adostu eta ordutegia zehazteko, betiere, ikastegiko eskola orduak errespetatuta. Ondoren, praktiketako arduradunarekin (dekanordearekin) egon beharko da, praktikak egiteko aukeratu duen tokia buruzko informazioa emateko (praktikak egiteko hurrengo aldia baino hilabete lehenago egon beharko da berretsita). Ikastegiko praktiken arduradunak ontzat eman beharko du ikasleak praktikak egiteko aukeratu duen tokia.
8. Praktiken arduraduna bitarteko izango da, ikaslea eta praktiketako begiralea harremanetan jar daitezen eta beharrezkotzat ikusten diren hautaketa probak egin ditzan ikasleak. Alde biak, praktikak egingo diren tokia eta ikaslea, harremanetan jarri behar dira. Aldeetako edozeinek esan diezaioke bai ala ez eskaintzari. Ikasleak, baietz esaten badio praktikak egiteko eskaintzari, jakinaren gainen jarri beharko du posta elektronikoaren bidez praktiken arduraduna (dekanordea).
9. Ikasleak praktikak egingo dituen tokian sinatuko du hitzarmena behin praktikak hasitakoan. Ikastegiko praktiken arduradunak (dekanordeak), praktiketako tutoreak eta enpresako begiraleak praktikak gidatuko dituzte eta bermatu egingo dute ikasleek egin beharreko jarduerak eta hitzarmenean proposatutako jarduera praktikoak benetan prestakuntza jarduerak direla eta graduari lotuta daudela; horrez gain, praktikak egiaztatze beharrezkoak diren eranskinak/txostenak ere beteko dituzte.



10. Praktikak bertan behera geratuko dira aldeetakoren batek (praktiken arduradunak, tutoreak, begiraleak, ikasleak) eskaera hori egiten badio praktiken arduradunari, txosten arrazoitua aurkeztuta. Praktikek ez badute adostutako moduan aurrera egiten, ikasleak praktikak egiteko beste toki bat eskatu ahal izango du hurrengo praktika aldietarako.
11. Praktiken arduradunak baloratu egingo du ikasleen gaitasuna praktikak egiteko. Praktikak bertan behera geratu ahal izango dira euren garapena eragozten duen arazorik gertatuz gero.